

965/2025 EBAZPENA, ekainaren 12koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Larrialdien Zerbitzuko atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen martxoaren 13ko 450/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Larrialdien Zerbitzuko atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko apirilaren 7ko EHAA 67 zk. eta 2025eko apirilaren 11ko EAO 88 zk.).

Arabako Erakunde Sanitario Integratuaren zuzendari gerentearen maiatzaren 29ko 794/2025 Ebazpenaren bidez, zuzendu egin ziren Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako martxoaren 13ko 450/2025 Ebazpenaren hutsak (88. zk.). Ebazpen horren bidez, Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuko atal sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen, eta gainerako jarduketetan mantendu egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen martxoaren 13ko 450/2025 Ebazpenean ezarritakoa (2025eko ekainaren 10eko BOE 139. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko maiatzaren 9an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Larrialdien Zerbitzuko atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)



Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 12a.

 Osakidetza ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.

KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO OSPITALEKO LARRIALDIEN ZERBITZUKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA.

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- José Javier Oribe Plágaro jn.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.